



2017

2017ko Memoria

TRAFIKO ZUZENDARITZA

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

BIDEA

1. PLAN ESTRATEGIKOA.....	6
▲ Misioa	
▲ Bisioa	
▲ Konpromiso europarra	
▲ Estrategiak eta jarduera-ildoak	
2. 2017KO JARDUERAK.....	10
2.1 BIDE-PRESTAKUNTZA ETA BIDE-HEZIKETA	12
2.2 BIDE-SEGURTASUN ETA MUGIKORTASUN SEGURU ETA IRAUNKORRAREN ARLOKO TOPAKETAK	16
2.3 TRAFIKO ZUZENDARITZAREN JARDUNALDI PROFESIONALA.....	18
2.4 INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA	20
2.5 DON'T BE DUMMY! PROGRAMAREN AURKEZPENA	22
2.6 ARGITALPENAK ETA AZTERLANAK	24
2.7 TRAFIKO-IKERKETA ETA BIDE-SEGURTASUNA	26
2.8 PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK.....	28
2.9 TRAFIKOA ZAINTEKO ETA KONTROLATZEKO KANPAINAK	30
3. 2017KO ISTRIPU-TASAREN BALANTZEA EUSKADIN	32
3.1 ERTZAINZAK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK	34
3.2 ERTZAINZAK ETA UDALZAINGOEK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK.....	36



2017KO
MEMORIA

AGURRA

Azken urte hauetan Euskadin istripu-tasaren beheranzko joera finkatzen ari da. Menderean hasieran gure kale eta errepideetan 200 pertsonatik gora hiltzen baziren ere, gaur egun, hildako biktimen kopurua ez da 40ra heltzen.

Hala ere, eta joerak joera, bide-segurtasunarekin konprometituta gauden eragile guztiok partekatzen dugun erantzukizun handiko eginkizun horri dagokionean, jakin badakigu oraindik ere ibilbide luzea dugula aurretik.

Gure ibilbide-orria Bide-Segurtasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2015-2020 da eta helburu europar honekin lerrokatuta dago: 2010 urtean trafiko istripuetan hildakoen kopurua oinarri hartuta, 2020an kopuru hori %50ean murriztea. Ibilbide-orri horrek ardatz estrategikoak markatzen ditu eta istripu-tasa murriztea lortzeko egin beharreko jarduerak definitzen ditu.


Hori dela eta, jarraian aurkezten dugun memoriak 2017. urteko ezbehar-tasaren balantzea jasotzeaz gain, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak iaz egindako jarduera nagusiak ere jasotzen ditu.

Prebentzioaren, sentsibilizazioaren, hezkuntzaren, berrikuntzaren, kudeaketaren, informazioaren eta trafikoaren kontrolaren arloko jarduerak dira, gure garraio- eta komunikazio-bideak egunero erabiltzen dituzten pertsonengan, hau da, oinezko, txirrindulari, motor-gidari edo beste edozein ibilgailu motaren gidarirengan, jokabide arduratsuak sustatzeko helburua dutenak.

Lanean jarraitu beharra dago, bide-segurtasuna eta mugikortasuna seguruagoak eta iraunkorragoak izan daitezen aurrera pausuak emanez. Lan horretan denon esfortzua eta lankidetzaz ezinbestekoak dira.



Estefanía Beltrán de Heredia Arroniz
Segurtasun Sailburua





PLAN ESTRATEGIKOA

TRAFIKO
ZUZENDARITZA

MISIOA ►

Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzaren misioa da bide-segurtasuna eta mugikortasun segurua eta iraunkorra sustatzea Euskadiko bide-sareko erabiltzaileentzat. Hori dela eta, prebentzioa, parte-hartzea eta gardentasuna oinarri dituen baloreen kultura bat eta kontzientzia zioa bultzatzen ditugu. Gainera, trafikoaren arintasuna eta segurtasuna kudeatzen ditugu.

BISIOA ►

Euskadi mugikortasun seguruaren eta iraunkorraren arloan erreferente bihurtzea, horretarako bide-segurtasunaren eta trafikoaren kudeaketaren arloan estrategia eraginkorrak erabiliz. Horietan, herritarrek portaera arduratsua izan behar dute eta erakunde publikoek, agente pribatuen lankidetzarekin, trafiko-istripuen kopurua eta larritasun-maila murrizteko modu koordinatuan eta eraginkorrean lan egin behar dute.

KONPROMISO EUROPARRA ►

Trafiko Zuzendaritzaren plan estrategikoa Europako helburu honekin bat dator: 2010. urtea oinarri hartuta, 2020rako trafiko-istripuetan hildakoen kopurua %50ean murriztea. 2010ean Euskadiko errepideetan 67 pertsona hil ziren. 2017. urtean 39 pertsona hil dira.

ESTRATEGIAK ETA JARDUERA-ILDOAK

Trafiko Zuzendaritzak BSMSIPE 2015-2020an estrategia hauek definitu ditu:



1
BIDE-HEZIKETA



2
**TRAFIKO-IKER-
KETA ETA BIDE-
SEGURTASUNA**



3
**TRAFIKOAREN
KUDEAKETA**



4
**ZAINZA
ETA KONTROLA**



5
**KUDEAKETA-
-EREDU AURRE-
RATUA**



The cover features a dark green background with a fibrous, paper-like texture. A bright yellow triangle is positioned in the upper right corner, pointing towards the center. The text '2017KO' and 'JARDUERAK' is printed in a light green, sans-serif font within the yellow area.

2017KO
JARDUERAK

2.1

BIDE-PRESTAKUNTZA ETA BIDE-HEZIKETA

BIDE- -PRESTAKUNTZA

- **BIDE-PRESTAKUNTZAKO IRAKASLEENTZAKO IKASTAROAREN DEIALDIA-2016:** Urrutiko irakaskuntzaren eta irakaskuntza presentzialaren faseak:
14 pertsonak gainditu dute ikastaroa eta bide-prestakuntzako irakasle izateko gaitasun-ziurtagiria lortu dute.
- **BIDE-PRESTAKUNTZAKO IRAKASLEENTZAKO IKASTAROAREN DEIALDIA-2017:** Aldez aurretiko hautaketa-proba.
Ikastaroaren 31 eskatzailek gainditu dute sarrera-proba.
- **GIDARI-ESKOLA PARTIKULARREN ZUZENDARIENTZAKO DEIALDIA-2017:** Hautaketa-proba:
14 eskatzaile eta batek ere ez du proba gainditu.

BIDE- -HEZIKETA

UNIBERTSITATETIK KANPOKO HEZKUNTZA-SISTEMAN MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA SUSTATZEA

- **“IKASGELAN, BIDE-ARRISKUEN PREBENTZIO-
IKASTAROAK”** online, Hezkuntza Saileko Prest Gara programaren barrukoak eta Trafiko Zuzendaritzaren ikasgela birtualean egindakoak.
4 ikastaro
91 parte-hartzaile
- Mintegi eta tailerrak, unibertsitatetik kanpoko hezkuntza sistemaren barruko ikastetxeei zuzenduak:
20 jarduera
136 parte-hartzaile

Ikasgeletan erabiltzeko programazioak, jarduerak edota materialak landu dira.

- **Eskolako agenda 2017/18:**
75.000 ale Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleentzat..
- Mugikortasun segururako hezkuntzarekin lotutako jarduerak landu dira, curriculumeko gaien araberakoa, **Lehen Hezkuntzarako.**
Matematikari eta mugikortasun seguruari buruzko 10 jarduera, Lehen Hezkuntzako hiru zikloetarako.

- Mugikortasun seguruarekin lotutako jarduera interaktiboak landu dira, ikasgeletan aplikatzeko.

Trafiko-istripuak prebenitzeko sentsibilizazio-ekintzak egin dira, unibertsitatetik kanpoko hezkuntza-sistemako ikasleentzat.

- **“Gerta dakizuke / Te puede pasar”** programa:
Bigarren Hezkuntzako zentroetan istripuei buruzko 231 testigantza-saio.
12.826 parte-hartzaile.
- **“Norabide aldaketa / Cambio de sentido”** antzerki-forum programa.
33 antzerki-saio DBHko ikastetxeetan.
826 parte-hartzaile.
- **“Road Show”** programa
Irunen saio bat.
500 gazte bertaratu dira.
- **“Don’t be Dummy! Zuk ez duzu ordezkorik / Para ti no hay repuesto(s)”** programa
14 saio
9 udalerritan
3.901 parte-hartzaile

GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOKO ERAGILEEN EGUNEROKO JARDUERAN MUGIKORTASUN SEGURUA SUSTATZEA

Bide-hezkuntzako programak garatzen dituzten udaltzainei zuzendutako mintegiak eskaini dira.

- 1. mailako ikastaroa **udaltzainentzat**:
Ikastaro 1 erdi-presentzial.
11 parte-hartzaile.
- Hobekuntza-ikastaroa **udaltzainentzat**.
Ikastaro 1 erdi-presentzial.
12 parte-hartzaile.
- Gaikako tailerrak **bide-heziketako monitoreentzat**.
3 tailer.
36 parte-hartzaile.
- **Ertzaintzako** boluntarioen ikastaroa:
2 ikastaro erdi-presentzial.
29 parte-hartzaile.



BIDEAN ARI DIREN KOLEKTIBOEN ARTEAN PREBENTZIOAREN BALIOA SUSTATZEA

Istripuak prebenitzeari eta jokabide seguruak sustatzeari buruzko sentsibilizazio-programak egin dira familien esparruan.

- **Seguru baietz/ Sí, seguro** programa:

41 saio kamioi eta karpekin, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan.

2.848 pertsona.

Istripuak prebenitzeari eta jokabide seguruak sustatzeari buruzko sentsibilizazio-programak egin dira adineko pertsonekin.

- **“Pausoz-pauso, seguru / Seguridad paso a paso”** programa:

35 hitzaldi-saio adinekoentzako zentroetan.

854 parte-hartzaile.

Istripuak prebenitzeari eta jokabide seguruak sustatzeari buruzko sentsibilizazio-programak egin dira kolektibo ahulen artean.

- **Motozikletak** seguru gidatzeko ikastaro teoriko-praktikoak:

6 ikastaro.

83 parte-hartzaile.



BIDEKO LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA SUSTATZEA

Enpresetako lan-arriskuei buruzko prestakuntzaren ardura-dunei, prebentzio-teknikariei edo prebentzioko ordezkari/arduradunei zuzendutako mintegiak eskaini dira.

- **Laneko bide-arriskuen** prebentziolari buruzko online ikastaroak:

5 ikastaro.

115 parte-hartzaile.





2.2

BIDE-SEGURTASUN ETA MUGIKORTASUN SEGURU ETA IRAUNKORRAREN ARLOKO TOPAKETAK

LAN-ARRISKUAK ETA BIDE-SEGURTASUNA. BIDE-SEGURTASUNA ENPRESA ARLOAN

Antolatzailea: Fesvial eta Adegí.

Lekua: Adegiko egoitzan, Donostiako Miramon parkean.

Data: Martxoaren 15ean.

INGENIARITZARI ETA GIZARTEAREN GARAPENARI BURUZKO JARDUNALDIA: IBILGAILU AUTONOMOA

Antolatzailea: Deustuko Unibertsitatea, Ingeniaritza Fakultatearen 40. urteurrena zela eta.

Lekua: Deustuko Unibertsitateko paraninfoan.

Data: Ekainaren 8an.

“GIZA FAKTOREA ISTRIPUEN KAUSALITATE GISA” JARDUNALDIA

Antolatzailea: Diputatuen Kongresuaren Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Segururako Batzordea.

Data: Ekainaren 9an.

HAURREN BIDE-SEGURTASUNARI BURUZKO LEHEN JARDUNALDIA

Trafiko Zuzendaritzak Bide-segurtasunaren aldeko Aliantzarekiko -AESVI- erakunde-atxikimendua sinatu du, DGTrekin eta Servei de Trànsit de Catalunyaekin batera.

Antolatzailea: Diputatuen Kongresua.

Data: ekainaren 26an.





AURKEZPENA: “TRAFIKO ZUZENDARITZAREN BIDE SEGURTASUNERAKO ETA MUGIKORTASUN SEGURU ETA IRAUNKORRERAKO PLAN ESTRATEGIKOA (2015-2020)”

Lekua: InterCISEVen II. Biltzarrean.

Data: urriaren 2 eta 3an.

XVI. HIRITAR TOPAKETA MUGIKORTASUNAREN INGURUAN. MUGIKORTASUNA GENERO IKUSPEGITIK

Antolatzailleak: RACVN eta Bilboko Udala.

Data: azaroaren 16an.

ESPAINIAKO GARAGARDOGILEEN ELKARTEAREN “ERREPIDEAN GABE” KANPAINA

Trafiko Zuzendaritzak Espainiako Garagardogileen Elkartearen “Errepidean GABE” kanpainan lagundu du, Donostiako eta Vitoria-Gasteizko Udalekin batera.

PROGRAMA EUOPARRETAN PARTE HARTZEA

Trafiko Zuzendaritzak Arku Atlantiko 2 proiektu europarrean eta EU-EIO ebaluazioan (European ITS Platform) parte hartzen jarraitzen du; Parisen, Erroman eta Londresen egindako 3 bileratara joan da eta EBK eta idazkaritza teknikoak proiektuen inguruan eskatutako txostenak egin ditu: jarraipen- eta jarduera-txostenak eta dagokion dokumentazio burokratikoa.

ESPAINIAKO ITS DATUAK BATZEKO BATZORDEAREN JARDUNALDIA

Jardunaldia aurkeztu eta horretan parte hartu du.

INRIX-EN ERABILTZAILA JARDUNALDIA

Jardunaldian parte hartu du.

“MUGIKORTASUNAREN MODELIZAZIOAREN ORAINA ETA ETORKIZUNA” MAHAI-INGURUA

Aimsu-en erabiltzaileen jardunaldian eginiko mahai-inguruan parte hartu du.

EUSKADIKO ITS BILTZARREAN, ITS, MUGIKORTASUN KONEKTATUA ETA ELEKTROMOBILITATEARI BURUZKO MAHAI-INGURUA

Mahai-inguruaren sarrera egin eta aurkeztu du.

2.3

TRAFIKO ZUZENDARITZAREN JARDUNALDI PROFESIONALA

ERANTZUKIZUN PARTEKATUA BIDE-SEGURTASUNAREN ALORREAN

- ▶ **Lekua:** Bilbon.
- ▶ **Data:** 2017ko urriaren 25ean.

PARTE HARTU ZUTEN



HIZLARIAK
EUROPAKOAK
ETA TOKIKOAK



PERTSONAK
120



PROGRAMA

INAUGURAZIOA

- Estefanía Beltrán de Heredia. *Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuneko sailburua*

1 MAHAIA: Erakundeen erantzukizunaren balioa bide-segurtasunaren alorrean

BIDE-SEGURTASUNA: EUROPAKO DIMENTSIOA

Matthew Baldwin. *Deputy Director-General responsible for directorates C, D and E. Mobility and Transport Directorate-General (MOVE) EU*

BIDE SEGURTASUNERAKO ARAUAK EZARTZEA. ERRESUMA BATUKO ESPERIENTZIA

Sonya Hurt. *Chair of Road Safety GB and Team Manager for Road Safety at Via East Midlands*

ESTRATEGIA PARTEKATUAK EAEKO BIDE SEGURTASUNEAN ETA MUGIKORTASUN SEGURU ETA IRAUNKORREAN

Sonia Díaz de Corcuera. *Eusko Jaurlaritzaren Trafikoko zuzendaria*

2 MAHAIA: Bide segurtasunaren kontzeptua alor juridikoan, hizkuntza sortzailearen bilakaeran eta enpresaren lehiakortasunean eta berrikuntzan

INTERES PUBLIKOA ETA HERRITARREN ESKUBIDEAK BIDE SEGURTASUNAREN ARLOAN

Manu Pedreira. *Euskadiko Bide-Segurtasuneko Fiskal Ordezkarria*

GIDATU EGITEN DUZU EDO GIDATU EGITEN ZAITUZTE?

David Caballero. *SCPFko zuzendari sortzaile exekutibo BMW-ren kanpainen agentzia*

ETORKIZUNeko MUGIKORTASUNA: KONEKTATUA, AUTONOMOA, PARTEKATUA, ELEKTRIKOA. GIDATZE AUTONOMOAREN AUKERAK ETA ERRONKAK

Claus Ehlers. *Director Product Strategy and Planning Mercedes-Benz-Cars*

3 MAHAIA: Giza faktorea mugikortasun seguru eta iraunkorraren alorreko paradigma aldaketaren aurrean

GIZAKIOK EZ DUGU KONPONBIDERIK... ALA BAI? ISTRIPUEN PARTE DIREN GIZA FAKTOREAK BERRAZTERTZEN

Aitor Aritzeta. *UPV/EHUko Psikologia doktorea, Psikologia Fakultateko irakaslea. Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzarentzat eginiko Gazte-Ziur ekimenaren zuzendaria*

GAZTE-ZIUR 2017 PROIEKTUA

Mariola Pascual. *Ikertzailea da Gazte-Ziur proiektuan, baita UPV/EHUko ikerketa talde bateko kide ere.*

ERAKUNDEAK BERRASMATZEAREN ERANTZUKIZUNA

Azucena Vega. *Enpresa-liderren eta -lantaldeentzako entrenatzailea*



2.4

INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA



TWITTER

JARRAITZAILEAK

17.400

@trafikoaEJGV

TXIOAK

65.968



YOUTUBE

BISUALIZAZIOAK

54.869

IGOTAKO BIDEOAK

54

HARPIDEDUNAK

36

www.youtube.com/TrafikoaEJGV



**APP
TRAFIKOAEJGV**

DESKARGA KOPURUA

2.002



WEB

SARRERAK: EGUNAREN BATEZ BESTEKOA

24.329

www.trafikoa.eus



011

JASOTAKO DEIAK

37.934

HEDABIDEAK

2017an, Trafiko Zuzendaritzak 3 prentsaurreko egin ditu, 24 prentsa-ohar zabaldu dira eta hedabideen 135 eskabide tramitatu dira.

2017ko datuak



PRENTSAU-
RREKOAK

3



PRENTSA-
OHARRAK

24



HEDABIDEEN
ESKABIDEAK

135

PUBLIZITATE-KANPAINAK

2017an zehar aldi hauetan zabaldu dira: urtarrila-
ren 16tik 21era, apirilaren 7tik 23ra, ekainaren 29tik
abuztuaren 31ra, azaroaren 17,18 eta 19an eta azaroa-
ren 27tik abenduaren 31ra.

- **Badugu arriskuen berri. Arduratsuak izan gaitzen.** (Alkohola eta drogak)
- **Badugu arriskuen berri. Arduratsuak izan gaitzen.** (Harrapatzeak)
- **Badugu arriskuen berri. Arduratsuak izan gaitzen.** (Arreta galtzea)
- **Badugu arriskuen berri. Arduratsuak izan gaitzen.** (Abiadura)
- **Don't be Dummy! Zuk ez duzu ordezkorik!**
- **Gogoratu: arreta eta errespetua.**



**DENBORA IRABAZTEARREN,
EZ GALDU DENA.**

**POR GANAR TIEMPO,
NO LO PIERDAS TODO.**

CONOCEMOS LOS RIESGOS.
SEAMOS RESPONSABLES.

BADUGU ARRISKUEN BERRI.
ARDURATSUAK IZAN GAITEZEN.

2.5

DON'T BE DUMMY! ZUK EZ DUZU ORDEZKORIK! AURKEZTEKO EKITALDIA

Lehendakaria bide-hezkuntzako 'Don't be Dummy! Zuk ez duzu ordezkorik /Para ti no hay respuesto(s)' proiektu berria aurkezteko ekitaldian izan zen.

Irailaren 22an, Durangoko San Agustin Kultur Etxean, Iñigo Urkullu Lehendakaria, Estefanía Beltrán de Heredia Segurtasuneko sailburuarekin, Josu Zubiaga Segurtasuneko sailburuordearekin, Sonia Díaz de Corcuera Trafikoko zuzendariarekin eta Aitziber Irigoras Durangoko Alkatearekin batera, Segurtasun Saileko bide-hezkuntzako Don't be Dummy! Zuk ez duzu ordezkorik! proiektu berria abian jartzeko ekitaldian egon zen.

Programa pedagogiko berri eta interaktibo horretako lehen bi saioak Autorik gabeko Mundu Egunarekin bat etorri ziren eta horietan Durangoko eta inguruko bost ikastetxetako 600en bat ikaslek parte hartu zuten.

Don't be Dummy! Zuk ez duzu ordezkorik! programan personaia birtual eta elkarreragile batek,

Dummy batek, alegia (automobilgintzako enpresek modelo berrietan segurtasun-probak egiteko erabiltzen duten panpina), bideratzen ditu trafiko-istripuen biktima izan diren pertsonen edo horien senitartekoen lekukotasunak, eta horretarako, Stop Accidentes Elkartearen eta Bizkarrezur Muineko Lesioak Ikertzeko Elkartearen (AESLEME) laguntza izan da. Istripuek sortzen dituzten larrialdi-egoeretan parte hartzen duten pertsonen (ertzainen, udaltzainen, Osakidetzako langileen, suhiltzaileen eta salbamenduko langileen, larrialdietako teknikarien, ...) bizipenen kontakizunak ere jaso dira ekitaldian. Lekukotasunekin tartekatzen diren bideoetan, heriotza ekar dezaketen trafiko-istripuak eragiten dituzten egoera arriskutsuak azaltzen dira, hala nola, gehiegizko abiadura, alkohola eta/edo drogak kontsumitzea, pertsona batek, gidatzen ari den bitartean, mugikorra edo bestelako tresna elektronikoak erabiltzea edo trafiko-seinaleak ez errespetatzea.





2.6

ARGITALPENAK ETA AZTERLANAK

Urtekaria, adierazleen liburua, Gazte Ziur proiektua - EHU, Innovabide enpresan bide-segurtasuna kudeatzeko praktika onen erreferentzia-markoa.

GAZTE ZIUR

Trafiko Zuzendaritzak babestutako ikerketa-proiektu bat da, EHUko Psikologia Fakultateak landu duena. Aitor Aritzeta doktoreak zuzendutako proiektu horrek Euskadiko gazteek bide-segurtasunaren inguruan dituzten irudikapen sozialak eta jarrerak identifikatzen eta aztertzen ditu.

INNOVABIDE

Trafiko Zuzendaritzaren proiektu bat da eta horretan Fesvialek, Tecnaliak, Pesik eta Euskalitek parte hartzen dute. Horren helburua da enpresetan Bide-segurtasuna kudeatzeko praktika onen erreferentzia-marko bat sortzea, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Aurreratuaren ereduaren barruan.



2.7

TRAFIKO-IKERKETA ETA BIDE-SEGURTASUNA

TRAFIKOARI BURUZKO AZTERLANAK

Trafikoari buruzko azterlanak egin dira Arkautin, Baranbion, Izarran, Karlos I.a hiribidetik Donostiara sartzeko bidean, Ermuan, Bastidan, N-240 errepidetik kamioien zirkulazioaren inguruan, Legution, AP-68ko Subillako pasabidean eta Durruma Donemiliagan. Halaber, udalerritxikiatarako eta oso txikiatarako bide-segurtasuneko planak egin dira: Urkabustaiz, Lezo eta Gorliz.

IKERKETA-PROIEKTUAK

Ikerketa-, garapen- ITS proiektuak.. Radar mugikorren bidez salaketak jartzeko prozesuaren automatizazioaren ezarpena amaitu da eta gainera, hasieran proiektuan jasota ez zeuden prestazio berri batzuk jarri dira.

GARRAIO BEREZIAK

Garraio berezien jarraipena eta kontrola egiteko modulua diseinatu da eta horri dagokion baldintza teknikoen agiria egin da.

TRAFIKOAREN KUDEAKETA

Zirkulazioaren arintasuna ebaluatzeko tresnaren garapena (2. fasea). Tresnaren funtzionalitate berriak garatu dira: bata, auto-ilaratan galdutako orduak kuantifikatzeko; eta bestea, ibilbidea egiteko denbora kalkulatzeko.

KUDEAKETA-TRESNAK

Bide-segurtasunari buruzko azterlanak egiteko tresna baten garapena (2. fasea). Bide-segurtasunaren arloan

erabakiak hartzen laguntzeko tresnari funtzionalitate berriak gehitu zaizkio: txostenak garatzea, parametro anitzeko grafikoan informazioa kontsultatzea eta tartearen identifikatzaileak automatikoki eguneratzea.

WEB-TRESNA BERRI BAT

Gidari batek epe laburrera egingo duen ibilbide batean zein egoera meteorologiko aurkituko duen aurreikusteko aukera ematen duena.

MATRIKULEN IRAKURKETA

A-1 errepideko 390 kp.an matrikulak irakurtzeko ekipo berriak instalatu dira.

KALKULATZEKO TRESNA

Errepide-sare nagusiko edozein puntutan intentsitatekurba kalkulatzeko tresna bat garatu da.

VIDEOWALL ETA KUDEAKETA-ETA INFORMAZIO-SISTEMA

Videowall sistemetako teknologien artearen egoera aztertu da eta gaur egungoaren ordez beste bat jartzeko baldintza teknikoen agiria prestatu da.



2.8

PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK

- Zehapen-espedienteen kop.: **366.642**
- Ezaugarri teknikoengatik edo garraiatzen duten zama banaezinagatik arauz ezarritako gehienezko masak eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuei emandako baimen berezien kop.: **4.067**
- Gidarien eskola partikularrei, horietako langileei eta ibilgailuei dagokienean, ibilgailuen alta-, baja- eta aldaketa-espedienteen kop.: **508**
- Lokaletako ikuskapenen kop.: **148**
- Data murriztaileetarako emandako zirkulazio-baimen berezien kop.: **427**
- Obrei eta beste ekitaldi batzuei buruzko jarraibideen kop.: **4450**

KIROL-PROBAK:

Trafiko Zuzendaritzak EAeko hiriarteko bideetatik guztiz edo zati batean igarotzen diren lasterketa, lehiaketa, txapelketa eta, oro har, kirol-probak baimentzen ditu eta horiei buruzko informazioa ematen du.

Baimenak EAEn: 356



1.867
AGENTE



251
AUTO



1.356
MOTOR

HITZARMENAK:

2017an Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatu da, trafikoaren eta errepideen arlokoa, eta bide-segurtasuna hobetzeko bideei buruzko informazioa trukatzeko. Halaber, toki entitate desberdinekin hiru hitzarmen sinatu dira trafikoko zehapen-prozeduratik eratoritzen diren ekintzak bide elektronikoak erabiliz jakinaraztearekin lotuta.

Trafikoko sistema adimendunak integratzeko ebaluazio teknikoa egin da, horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren Errepi-deetako Kontrol Zentroarekin interkonektatzeko hitzarmenaren barruko akordioen parte dira eta.

Bidegi Kontrol Zentroarekin interkonektatu ahal izateko konponbide teknikoak aztertzeke bilerak egin dira.

EAEn egindako kirol-probetan mobilizatu ziren baliabideak
(Ertzaintzaren laguntza-zerbitzuari buruzko datuak dira, eta ez Udaltzaingoenak):



2.9

TRAFIKOKO ZAINZA ETA KONTROLA

TRAFIKOKO ZAINZA- ETA KONTROL-KANPAINAK

Sonia Díaz de Corcuera Trafikoko zuzendariak, otsailaren 6an, Ertzaintzak 2017an egin beharreko Zaintza eta Kontrol egutegia aurkeztu zuen. Erandion egin zen lan-bilera horretara Rodrigo Gartzia Segurtasuna Koordinatzaile zuzendaria, Iñigo Ibarra Ertzaintzaren Trafikoko Buruzagitza Nagusiko intendentea, Aitor Lete Udaltzaingoaren Koordinazio-arloko burua eta Arabako, Bizkaiko eta

Gipuzkoako udaltzaingoetako ordezkariak bertaratu ziren. Bide-segurtasuna hobetzeko eta trafiko-istripuen biktimen kopurua murrizteko helburuarekin, guztira, hainbat arrisku faktore (abiadura, arreta-galtzea, alkohola...) begiratzera zuzendutako 37 kanpaina egitea erabaki zen.

Ertzaintzak 2017an prebentziozko jarduera hauek egin zituen:

PREBENTZIOZKOAK

- Prebentziozko alkoholemia-probak: **78.090**
- Prebentziozko droga-probak: **4.603**
- IATren kontrolatutako ibilgailuen kopurua: **6.162**
- Kaskoaren eta segurtasun-uhalaren kontrola. Kontrolatutako ibilgailuen kopurua: **34.718**
- Abiadura-kontrolak. Kontrolatutako ibilgailuen kopurua: **1.862.746**

ISTRIPUAK ETA ARAU-HAUSTEAK

- Istripuen ondoriozko droga-probak: **272**
- Arau-hausteen ondoriozko droga-probak: **439**
- Istripuen ondoriozko alkoholemia-probak: **9.562**
- Arau-hausteen ondoriozko alkoholemia-probak: **419**



NEGUKO BIDEZAINZA PLANA

2017an 8 aldiz aktibatu zen Neguko Bidezaintza Plana, jarraipen- eta informazio-fasean (elur-kota 1000 metrotik behera). 6 aldiz igaro zen fase operatibora, elur-kota 700 m-tik behera jaisteagatik.

Baliabide hauek mobilizatu ziren: Foru Aldundien eta Autobideen elurra kentzeko makinak (170); Trafiko Zuzendaritzaren Garabi Astunak (7) eta Bide Koordinaziorako postuak (8 patruila eta horietako bakoitzean ertzain bat eta Errepideak Artatzeko teknikari bat, elkarrekin 3 lurralde historikoetan errepideen egoera ebaluatzeko).



TRAFIKOKO OPERAZIO BEREZIAK

2017ko Aste Santuan, Pazko Astelehenean, Armiñonen seinalizazio-operatibo bat egin zen, Irungo noranzkoan, AP-1 eta A-1en arteko lotunean (konoen eta trafiko-seinaleen bitartez A-1eko errei bat AP-1i uzten zaio, zirkulazio-fluxu handia daukalako).

Udan, irteera-operazioan, uztailaren 28, 29 eta 30ean eta abuztuaren 4 eta 5ean, seinalizazio-operatiboak egin ziren

AP-1 eta N-622ren arteko lotunean, Etxebarri-Ibiñan, Vitoria-Gasteizko noranzkoan (konoen eta trafiko-seinaleen bitartez, N-622ko errei bat AP-1eko irteerari uzten zaio, zirkulazio-fluxu handia daukalako) eta N-622 eta A-1en arteko lotunean, Burgos/Madrileko noranzkoan (konoen eta kartelen bitartez, A-1eko errei bat uzten zaie N-622tik sartzen direnei, zirkulazio-fluxu handiagatik).

Itzulera-operazioan Armiñonen seinalizazio-operatiboa egin zen abuztuaren 17, 18, 19, 20, 24, 25, 26 eta 27an.

Gainera, urtero (2017an ere bai) udan zirkulazio-dentsitate handieneko data berezietan, Ertzaintzaren helikoptero-unitate batek zirkulazio-zailtasun handieneko gunek zaintzen ditu.







2017ko

ISTRIPU- -TASAREN BALANTZEA

3.1

ERTZAINZAK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK

2017. urtean zehar Ertzaintzak Euskadiko errepideetan 7.756 trafiko-istripu erregistratu ditu, horietatik 2.341 istriputan zaurituak egon dira eta 5.415 istriputan ez da zauriturik egon. Istripu horietan 13.647 ibilgailu eta 14.876 pertsona egon dira inplikaturik, eta pertsona horietatik 34 hil dira, 320k zauri larriak izan dituzte eta 2.944k zauri arinak.

1. taulan ikusten den moduan, 2016ko datuen aldean, istripuen kopuruak, istripuan zaurituak egon zein ez egon, eta inplikaturik ibilgailuen eta pertsonen kopuruak behera egin dute. Hildakoen kopurua txikitu da; zauritu larriena, ordea, handitu da.


Horrez gain, adierazle guztien azken urteetako bilakaerak, 2014ko hildakoen kopurua alde batera utzita, ezbehar-tasaren beherazko joera argia adierazten jarraitzen du, 1. taulan ikusten den moduan.

Egia da, 1. grafikoak erakusten duen moduan, zaurituak eragin dituzten istripuen serieak, bideko ezbehar-tasarekin lotutako serie guztien artean estatistikoki fidagarriena baita, 2001etik aurrera beherazko joerari eusten diola, baina joera horri eustea gero eta zailagoa dela ere egia da, oso behean dagoen atalase batera heldu delako.

1. TAULA | TRAFIKO ISTRIPUAK 2017AN

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	DIF % 2017-2016
ISTRIPU KOPURUA GUZTIRA	8.406	8.139	8.323	7.883	7.300	8.071	7.756	-3,9
Zaurituak eragin dituzten istripuak	2.511	2.267	2.307	2.292	2.228	2.484	2.341	-5,8
Zauriturik gabeko istripuak	5.895	5.872	6.016	5.591	5.072	5.587	5.415	-3,1
INPLIKATUTAKO IBILGAILUAK	14.594	12.180	13.959	13.469	12.632	13.854	13.647	-1,5
INPLIKATUTAKO PERTSONAK	16.059	15.210	15.278	14.866	14.009	15.312	14.876	-2,8
Hildakoak	52	50	46	24	44	39	34	-12,8
Zauritu larriak	295	289	293	257	285	270	320	18,5
Zauritu arinak	3.230	2.938	2.957	2.928	2.778	3.172	2.944	-7,2

1. GRAFIKOA | EUSKADIKO ERREPIDEETAN ZAURITUAK ERAGIN DITUZTEN ISTRIPUEN BILAKAERA



2017an Euskadiko errepideetan gertatutako trafiko-istripuen ezaugarrien artean hauek nabarmendu behar dira:

- Istripua izan duten hamar pertsonatik zazpi gizonetzkoak izan dira, eta hiru emakumezkoak. Zaurituak eragin dituzten istripuen kasuan, gizonetzkoen ehunekoak apur bat behera egin du, 5 puntu, eta emakumezkoenak apur bat gora. Hildakoak eragin dituzten istripuen kasuan, ordea, gizonetzkoen ehunekoa %77ra igo da eta emakumezkoena jaitsi.
- Errepideetako trafiko-istripuetan inplikaturik egon diren pertsonen %24 izan dira 35 eta 44 urte bitartekoak; %20 25 eta 34 urte bitartekoak, %21 45 eta 54 urte bitartekoak, %13 15 eta 24 urte bitartekoak, %12 55 eta 64 urte bitartekoak, %7 65 urte edo gehiagokoak eta, azkenik, %3 15 urtetik beherakoak. Azpimarratzekoa da 2017an errepideetako istripuetan inplikaturik egon diren pertsonen adinaren arabera banaketa hau ez dela asko aldatu aurreko urteetan istripua izan zuten adinaren arabera banaketaren aldean.
- Istripua izan dutenen %80 gidatzen zebiltzan istripua gertatu zenean, %19 bidaiariak ziren eta %1 oinezkoak.
- Inplikaturik ibilgailuen %64 turismoak izan dira, %4 ziklomotoreak edo motozikletak, %3 bizikletak

eta gainerakoak pertsonak edo salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak izan dira.

- Zaurituak eragin dituzten istripuen %38 martxan zeuden ibilgailuen arteko talkagatik izan dira, %20 galtzadatik irteteagatik edo amiltzeagatik, %18 alboko langaren aurkako talkagatik, %14 iraultzeagatik, %5 harrapatzeagatik eta gainerako %5a beste istripu mota bategatik.
- Bidearen egoerari dagokionez, esan behar da kasuen %58an lehor eta garbi zegoela, eta gainerako %42an bidearen gainazalean bidearen egoera baldintzatzen zuen zerbait zegoela: ura, elurra, izotza, olio, etab.
- Istripuen %51 lan-egunetan gertatu dira eta %49 jai-egunetan, jai-egunaren aurreko edo jai-egunaren osteko egunean. Zaurituak eragin dituzten istripuetan banaketa berbera mantendu da.
- Zaurituak eragin dituzten lau istripuetatik hiru egunez gertatu dira eta bat gaez.
- Istripu guztien %32 eta zaurituak eragin dituzten istripuen %23 autobide eta autobietan gertatu dira.
- Istripua izaten duten gidariek, oro har, kaskoa edo segurtasun-uhala erabiltzen badute ere, 2017an segurtasun-uhala eramateko betebeharra zeukaten 39 hildakoetatik %20k ez zuten eramaten.

3.2


ERTZAINZAK ETA UDALTZAINGOEK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK

2017 urtean, **Euskadiko kale eta errepideetan** hildakoak eragin dituzten 34 trafiko-istripu gertatu dira (29 Ertzaintzak erregistratuak eta 5 Udaltzaingoez) eta horien ondorioz, 39 pertsona (34 Ertzaintzak erregistratutako istripuetan eta 5 Udaltzaingoez erregistratutakoetan) mementoan edo lehen 24 orduak igaro aurretik hil dira. Aurtan, guztira, hildakoak eragin dituzten zirkulazio istripuak ia baina bederati

gutxiago izan dira eta ia baina zazpi pertsona gutxiago hil dira istripuetan.

Euskadin trafiko-istripu baten ondorioz hildakoen bilakaera 2.grafikoan ikusten da. 2015ean hildakoen kopurua handitu bazen ere, 2016an eta, batez ere, 2017an berriz ere beheranzko joera agertu da.

2.GRAFIKOA | HILDAKOEN BILAKAERA ERTZAINZAK ETA UDALTZAINGOEK ERREGISTRATU DITUZTEN TRAFIKO-ISTRIPUETAN



ISTRIPU-TASAREN TIPOLOGIA

- Hildakoen %59 gidariak izan dira (%30 motor-gidariak eta %70 turismo edo beste ibilgailu batenak), %23 bidaiari moduan zihoazen pertsonak izan dira (denak turismoetan, motorrean zihoan bat izan ezik) eta gainerako %18a oinezkoak izan dira (bi pertsona turismo batek harrapatuak, beste bi furgoneta batek harrapatuak, bi kamioi batek harrapatuak eta 1 ekortzeko makina batek harrapatua).
- Hildakoak eragin zituzten istripuen %31 "galtzadatik ateratzeagatik" gertatu dira, %51 "talkengatik" eta %18 "harrapatzeengatik".
- Istripua izan duten hamar pertsonatatik zazpi gizonezkoak izan dira, eta hiru emakumezkoak. Desoreka hori are handiagoa izan da gidarien artean; izan ere, hildako 23 gidaritatik 4 baino ez dira emakumezkoak izan.
- 2017an hildako pertsonen tipologia, 2016an hildakoen tipologiarekin konparatuta, nabarmena da gidarien pisuak (-8) eta oinezkoenak (-3) behera egin dutela, baina bidaiariarenak gora (+4).

HILDAKOEN PORTZENTAJEA ADINAREN ARABERA:

- Hildako gidarien %13 izan dira 14 eta 24 urte bitartekoak; 25 eta 44 urte bitartekoak %35; 45 eta 64 urte bitartekoak %43; eta gainerako %9a 65 urte edo gehiagokoak.
- Hildako bidaiariaren %11 izan dira 14 urtetik beherakoak, 14 eta 24 urte bitartekoak %22, 25 eta 44 urte bitartekoak %44, eta 45 eta 64 urte bitartekoak %22.
- Hildako oinezkoen %29 izan dira 25 eta 44 urte bitartekoak, 45 eta 64 urte bitartekoak %29, eta 65 urte edo gehiagokoak %42.

HILDAKOEN PORTZENTAJEA

| ADINAREN ARABERA |



TURISMO-GIDARIAK/ BESTE IBILGAILU BATEN GIDARIAK
41%

Gizonezkoak 81% Emakumezkoak 19%



MOTOR-GIDARIAK
18%

Gizonezkoak 86% Emakumezkoak 14%



BIDAIARIAK
23%

Gizonezkoak 56% Emakumezkoak 44%



HARRAPATZEAK
18%

Gizonezkoak 57% Emakumezkoak 43%

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

www.trafikoa.eus



@TrafikoaEJGV

